

ZERBITZU PUBLIKOAK - Haurreskolak**2021-2022 IKASTURTEAREN HASIERA**

Jada 2021-2022 ikasturteari hasiera eman diogu. Covid-19ak sortutako egoerak bultzatuta, aurten ere **ikasturte desberdina** izango dugu; Besteak beste, Haurreskolak Partzuergoak lanpostuen zerrenda mantendu eta esleipenak ez egiteaz gain, abuztuaren amaieran, finko eta lep artekoen **desplazamenduak egiteko ezohiko deialdia burutu** da eta kontratupean dauden ordezkioak mugitzen hasi da.

Gauzak horrela, gogoratu, Lan Hitzarmenaren **13. artikuluan** behin-behinean atxikipena aldatzeko (mugimenduak) prozedura eta desplazatuak izateko hurrenkera zehazteaz gain, **mugimendua gauzatzeko bi eguneko aurrearpenarekin** egiteko beharra zehazten dela. Horrela izan ezean, langileari 2 jai egun emanda konpentsatuko zaio. Haurreskolak **Partzuergoak** 2021-2022 Ikasturte hasierari begira egindako **lehenengo proposamenean**, gure harridurarako, **ez zuen kontingentzia plana kontenplatu** eta 168 mugimendu jasotzen zituen bere proposamenean. Uztailen izandako mahai negoziatzailean **LABek egindako ekarpenari esker**, kontingentzia planak aurrera eraman ahal izateko **errefortzuak ezartzeko konpromesua** hartu zuen Partzuergoak eta modu horretan, hasieran proposatutako **desplazamenduen erdia baino gehiago** eta **haurreskola txiki batzuk irailean ixtea ekidin ditugu**, Hauek dira Haurreskolak Partzuergoak eta Administrazioak hartutako **konpromesuak**:

1. Covid errefortzuak irailaren 1tik:

- Unitate bakarreko haurreskoletan:
 - 8 haur > geletan: jardun osoko hezitzaile bat gehiago
 - 8 haur < geletan: 2 hezitzaile
- 2-3 unitateko haurreskoletan: hezitzaile bat gehiago
- 4 unitatetik gorako haurreskoletan: 2 hezitzaile gehiago

2. Aurten egin diren aparteko orduen erabilpen ankerrik ez egiteko konpromesua.

3. Ordezkapenak lehen momentutik egingo dira 2018an LABek sinatutako akordioan jaso zen bezala.

4. Epez kanpo matrikulazioak kudeatuko dira.

Beraz, zuen haurreskoletan pertsonal hornikuntzari begira aipatutako **baldintza hauek betetzen ez badira**, koordinatzaileei **Partzuergoan eskaera egiteko gomendioa** ematen dizuegu. Horrez gain, ezezkoa jasotzen baduzue **LAB sindikatuarekin harremanetan** jar zaitezte.

Bukatzeko, gogoratu Lan hitzarmena, LABek sinatutako 2018ko akordioa barne, gure eskubiden oinarri direla eta dokumentu guztiak erkuragarri daudela <https://irakaskuntza.lab.eus> eta Haurreskolak Partzuergoaren web orrialdean.

Edozein zalantza izanez gero, deitu LABeko egoitzetara konfidantza osoz.